

Araudia

1. ARTIKULOA

Donostia Baiona Donostia martxa zikloturista froga ez lehiakorra da, sailkapenik gabekoa. 18 urtetik gorako emakume zein gizonezkoek izena eman dezakete.

2. ARTIKULOA

Ekitaldiak antolatzeko protokoloek bat etorri behar dute COVID-19-ren prebentzioari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin. Hori dela eta, erakundeak egokitu egin ditu probaren protokoloak eta zerbitzuak Osasun Sailak – Osakidetzak eta dagozkion agintariek gaur egun eskatzen dituzten inguruabarretara eta araudira. Horregatik, martxan eskaini ohi diren zerbitzuak proba egiteko unean dauden osasun-irizpideetara egokituko dira.

3. ARTIKULOA

Partaideek antolakuntzak indarrean duen **COVID-19 protokoloa** eta bide-segurtasun legea errespetatu eta N.A.N-a edo lizentzia eraman beharko dituzte. Gogora arazten da, ez dela garraiorik gabeko lasterketa bat martxa zikloturista bat baizik, eta errepidearen eskubiko aldetik joan beharra dagoela, biribilguneak eta trafiko seinaleak errespetatuz eta martxa antolatzailen azalpenak jarraituz. Garraioa oztopatu eta arriskua handitu dezaketen 20 partaide baina gehiagoko taldeak ekiditzea ere gomendatzen da, arriskuak gutxitu eta trafikoa ez oztopatzeko.

4. ARTIKULOA

Proban egiten den parte hartzea, bere erantzukizun eta arriskuaren pean egiten da. Parte-hartzaileak, izena emateko unean, proba egiteko fisikoki gai dagoela adierazi du. Ahalegin-proba bat egitea gomendatzen da, parte-hartzailearen forma-egoera ona egiaztatzeko eta izan ditzakeen kardiopatiak baztertzeko.

5. ARTIKULOA

Probako izen-emateak web orriaren bidez egingo dira, www.donostiabaionadonostia.com, kreditu txartelarekin ordaintzeko pasabidearen bidez. Inskripzio bat baliozkotzat joko da dagokion zenbatekoa ordaintzen denean. Titulartasuna eta inskripzio-eskubideak ezin zaizkio beste pertsona bati eskualdatu, eta ezinezkoa da parte-hartzaile bat beste batekin ordezkatzeko, antolakundeak horretarako baimena ematen ez badu behintzat, azken horrek egingo baitu aldaketa.

6. ARTIKULOA

Inskripzioa formalizatu ondoren, ez da inskripzio-kuotaren itzulketarik egingo arrazoi pertsonalengatik, lesioengatik edo antolakundeari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik

7. ARTIKULOA

Agintari eskudunen erabakiz, COVID-19-a dela eta, martxa bertan behera geratzen bada, izen-ematearen kuotaren diru itzulketa egingo da edo martxaren hurrengo datan parte hartzeko aukera emango da. Itzultzeko kopurutik 5 € deskontatuko dira antolakuntza gastuagatik

8. ARTIKULOA

Martxa zikloturistaren irteera Donostiako Nafarroa Hiribidean, Manteo Udal Kiroldegiaren parean, emango da 2022-eko apirilaren 2-an. Irteera goizeko 8:00-etan emango da. Helmuga Manteo Kiroldegia-ren ondoan dagoen Manteo Institutuan izango da (11:30-tatik 15:00-tara).

9. ARTIKULOA

Martxak 122 km-ko ibilbidea du seinaleztatuta. Alternatiba gisa, 82 kilometroko ibilbide laburrago bat eskaintzen da, ibilbide beretik igarotzen dena. Bi ibilbideak antolakuntzak seinaleztatuko ditu.

10. ARTIKULOA

Ficoba-n Kontrol Puntu bat ezarriko da bi ibilbideentzat. Bertan, antolakuntzako 2 pertsonak, itzulerako ibilbidean bertatik **eguerdiko 12:45-tarako** pasa ez diren partadaide guztiei dortsala kenduko diotelarik. Hauek dortsalik gabe amaitu ahal izango dute froga.

11. ARTIKULOA

Dorsalak Manteo Kiroldegian jasoko dira, apirilaren 1-ean 9:00-etatik 21:00-etara eta probaren egunean bertan 6:45-etatik 7:45-etara leku berean. Ezinbestekoa izango da titularraren NAN-a aurkeztea.

12. ARTIKULOA

Lasterketako antolakuntzak bi ibilbidetanr eta helmugan zenbait hornidura puntu aurre erabaki ditu edari eta jakiekin. Ibilbide luzean, 59 eta 97 kilometro-puntuak. Ibilbide motzerako 58. kilometro-puntua Gainontzeko parte hartzaileak errespetatu itzazu, helmugara edo hurrengo hornidura puntura iritsi arte behar duzuna soilik har ezazu.

13. ARTIKULOA

Ingurumenean kalteak ekiditzearen antolatzaileak edukiontzia kokatuko ditu hornidura puntuetan ontzi, bilgarriak edo jakiak bota ahal izateko. Mesedez, martxan ez ezazue ezer errepidera bota, ingurumena errespetatu dezagun!!

14. ARTIKULOA

Derrigorrezkoa da homologatua dagoen kaskoa eramatea.

15. ARTIKULOA

Martxan parte hartzen duen pertsona orok nahitaez eta ikusteko moduan eraman beharko ditu dortsala (eskulekuaren aurrealdea) eta dortsalaren ondoan emandako eskumuturrekoa.

16. ARTIKULOA

Antolakuntzak, proba garatzeko eta une-oro, asistentzia medikoko zerbitzu bat izango du, bizi-euskarri aurreratuko 3 unitaterekin eta medikuarekin.

17. ARTIKULOA

Antolakuntzak kortesiazko laguntza mekanikoa izango du proban zehar, bidean konpon daitezkeen konponketei bakarrik erantzuteko. Matxura gertatuz gero, ordezeko piezak parte-hartzaileen kontura izango dira. Gogoan izan parte-hartzaileek beren ordezeko piezak eraman behar dituztela eta buruaskiak izan behar dutela.

18. ARTIKULOA

Antolakuntzak martxarekin zerikusia duen edozer gauza aldatzeko aukera izango du, egoerak hala eskatzen badu.

19. ARTIKULOA

Irudi-eskubideak. Erregelamendu hau onartzeak esan nahi du parte-hartzaileak baimena ematen diola antolakuntzari bertan duen partaidetza osorik edo zati batean grabatzeko, eta ados dagoela bere irudia modu guztietan (bideoa, argazkiak, sare sozialak, kartelak, komunikabideak...) erabiltzea martxaren irudia sustatu eta zabaltzen erabiltzeko, eta ez duela eskubiderik inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko.

20. ARTIKULOA

Baldintza meteorologikoen proba egitea ahalbidetzen ez badute eta proba etenda geratzen bada, arrazoi handiengatik eta parte-hartzaileen segurtasuna zaintzeko, ez da inskripzioaren zenbatekoa itzuliko.

21. ARTIKULOA

Martxan izen ematea gauzatzeak araudi honen atal ezberdinen onarpena eta betetzea suposatzen du.